a) El cálculo de mensualidades para el beneficiario de amortización del principal e intereses, se realizará por el sistema de amortización francés (amortización progresiva con intereses vencidos) al tipo de interés subsidiado en cada caso, y con pagos mensuales constantes.

b) La mensualidad así calculada surge de la agregación de dos componentes: pago de intereses producidos en el período, de un lado, y la amortización progresiva de parte del préstamo recibido, de otro.

c) Los intereses de cada período para el establecimiento de crédito, se determinarán sobre el capital pendiente de amortizar (capital vivo), calculados al tipo de interés vigente en cada período.

d) La subsidiación de intereses por parte del Gobierno Vasco consistirá en el pago a cada Establecimiento de Crédito de la diferencia existente en cada período de liquidación mensual entre los intereses devengados por el capital pendiente de amortizar al tipo de Convenio (el tipo fijo inicial del primer año o el tipo variable revisable) y los intereses liquidados, al tipo efectivo subsidiado, al beneficiario.

e) En el caso de líneas de descuento de certificaciones de obras la operativa es exactamente la misma por la financiación concedida, con liquidaciones mensuales de intereses, durante la vida temporal de la línea, no realizándose en ningún caso descuentos al «tirón» o descuento anticipado de intereses.

El período de duración de la subsidiación será el determinado para cada figura protegible en la presente norma.

3.– Las subvenciones serán compatibles con otro tipo de ayudas que puedan establecerse por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco o por otras Administraciones e Instituciones, siempre que la cuantía total de las subvenciones otorgadas no exceda del coste total de la actuación.

En lo no expresamente contemplado en esta normativa será de aplicación lo dispuesto en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

4.– El Gobierno vasco subsidiará también los tipos de interés derivados de préstamos, que reuniendo las características previstas en este artículo, pudieran concertar personas jurídicas mercantiles participadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma cuyo objeto social coincida con sus políticas públicas de vivienda de protección oficial con entidades de crédito en condiciones distintas de las acordadas en los convenios a que se refieren los artículos 42.1.a) y 43.1 del presente Decreto.

a) Hitzarturiko interes-tasa handiagoa bada kreditu-erakundeek EAEko Administrazioarekin izenpetu duten indarreko hitzarmenean jasotakoa baino, azken horren eta sorotsitako urteko interes-tasa efektiboaren arteko aldea sorotsiko da.

b) Txikiagoa bada, hitzarturiko interes-tasak sorotsitako urteko interes-tasa efektiboarekiko duen aldea sorotsiko da.

45. artikulua.— Neurri finantzarioak zehaztea.

1.— Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko sailburuek urtero eta elkarrekin finkatuko dituzten Kreditu Erakundeekin hitzartu beharreko baliabideen gehienezko bolumena, arau honetan adierazitako jarduera babesgarrien finantziazio kualifikatuari dagokionez.

2.— Zuzeneko diru-laguntzen guztizko bolumenak ez ditu gaindituko dagokion ekitaldian EAE Aurrekontu Orokorren Legean jasotako kredituak edo, kreditu-transferentziak egiten direnean, eguneratsetik lortutako kreditua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Erregimenari buruzko legezko xedapenen testu batEGINA onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegingtzako Dekretuan erabakitakoari jarraiki.

3.— Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako sozietate publikoen kasuan, deskontu-lerroen bidez urtean finantzatzeko mugak dagokion EAEko Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko dira.

4.— Urtero, ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabeteen barruan eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, diru-laguntza lerro honetara zuzendutako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

5.— Ez da laguntzak emateko erabakirik hartuko, gastua egozteko aurrekontuak ez duenean aurrez zehaztutako xederako kreditu egoki eta nahikorik. Hori dela eta, eten egingo da arau honen eraginkortasuna laguntza berriak emateari dagokionez. Hori gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

46. artikulua.— Jasotako zuzeneko diru-laguntzak itzultzea.

1.— Erosteke edo birgaitzeko zuzeneko diru-laguntzak jaso dituzten etxebizitzak edo merkataritza-lokalak ezin izango dira inter vivos laga, salerosketako eskritura publikoa ematen denetik zenbatzen hasi eta 10 urteko epearen barruan, ez eta obra-amaierako ziurtagiria ematen denetik zenbatzen hasi eta 5 urteko epearen barruan ere, ez bada aldez aurretik jasotako laguntzak dagozkien legezko interesarekin itzuli direla egiaztatzen.

a) En el supuesto de que el tipo de interés acordado fuese mayor que el contemplado en el convenio en vigor suscrito por los establecimientos de crédito con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se subsidiará la diferencia entre este último y el tipo de interés efectivo anual subsidiado.

b) En el caso de que fuese menor, se subsidiará la diferencia que el acordado alcance respecto el tipo de interés efectivo anual subsidiado.

Artículo 45.— Determinación de las medidas financieras.

1.— Los Consejeros de Hacienda y Administración Pública, y de Vivienda del Gobierno Vasco fijarán anualmente, y de forma conjunta, el volumen máximo de recursos a convenir con los Establecimientos de Crédito, en orden a la financiación cualificada de las actuaciones protegibles señaladas en la presente norma.

2.— El volumen total de ayudas económicas directas no superará los créditos consignados en la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco de cada ejercicio o el crédito que resulte de su actualización en el caso de que se efectúen transferencias de crédito, conforme a lo estipulado en el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales sobre Régimen Presupuestario de Euskadi.

3.— En caso de Sociedades públicas adscritas al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales los límites anuales de financiación a través de líneas de descuento serán fijados en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.— Anualmente, dentro de los tres primeros meses de cada ejercicio, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se dará publicidad, en el Boletín Oficial del País Vasco, del importe de los créditos consignados para la financiación de las ayudas destinadas a esta línea subvencional.

5.— No procederá la resolución de concesión de ayudas en el caso en el que el Presupuesto al que deba imputarse el gasto carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la eficacia de esta norma en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas. Dicha circunstancia será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 46.— Supuestos de reversión de las ayudas económicas directas percibidas.

1.— Las viviendas o locales que hayan sido objeto de ayudas económicas directas para su compra o rehabilitación no podrán ser objeto de disposición voluntaria «inter vivos» en el plazo de 10 años desde el otorgamiento de la escritura pública de compraventa y 5 años desde la certificación final de obra, respectivamente, sin la previa acreditación de la reversión de las ayudas percibidas junto con el interés legal correspondiente.

2.– Hauek dira itzuli beharko ez diren diru-laguntzak eta esleipenak:

a) Higiezineta osagai komunak birgaitzeko diru-laguntzak.

b) Etxebizitzaren edo lokalaren titularkide baten alde esleitutakoak, elkarketa zibilen udal-erregistroan inskribatutako zein inskribatu gabeko bikoteen banantzeen edo senar-emazteen dibortzioen ondorioz, eta lehen graduko ahaideek osatutako bizikidetza-unitateen banantzeen ondorioz.

3.– Erosteke edo birgaitzeko zuzeneko diru-laguntzak jaso dituzten etxebizitzaren jabeek konpromisoa hartzen dute Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzaren aurrean etxebizitza erabiltzeko muga erregistratzeko:

– 10 urtez, salerosketa-eskritura publikoa ematen denetik zenbatzen hasita, erabilitako etxebizitza libre erosteke zuzeneko diru-laguntzak jaso direnean.

– 5 urtez, obra-amaiera egiaztatu denetik zenbatzen hasita, birgaitzeko zuzeneko diru-laguntzak jaso direnean.

Konpromiso hori adierazten duen agiria dagokion Jabetza Erregistroan aurkeztuko dute, eta bertan, dokumentu hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera erregistratuko da jabaria erabiltzeko muga.

4.– Laguntza eman duen Administrazioak jabaria erabiltzeko muga Jabetzaren Erregistroan aurkeztu dela frogatzen duen agiria jasotzen duenean, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzaren ordainketa aginduko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Dagokion araudian aurreikusitako legeko epea iragan aurretik kalifikazioa kendu ahal izango da, baldin eta birgaitzeko edo eskuratzeko jarduerak babestuen ondorioz kalifikatutako etxebizitzak badira, etxebizitza horiek babes ofizialeko etxebizitzatzat jo izana hirigintza-hitzarmen batean aurreikusita egon ezean.

Etxebizitzaren jabeak hala eskatzen baldin badu onartu ahal izango da kalifikazioa kentzea, bere egungo jabeak edo aurreko edozein jabe etxebizitza birgaitzeko edo eskuratzeko jasotako zuzeneko diru-laguntzen zenbateko osoa –hura jaso zenetik sortutako interesak barne– itzuli ondoren, indarrean dagoen legeko interes-tasaren arabera.

Bigarrena.– EAEko Udalek dagokien Lurralde Ordezkaritzaren aurrean udal-etxebizitza tasatuaren salerosketa-hitzarmenen kopia aurkeztu behar dute, betie-

2.– Quedan excluidas de la reversión:

a) Las ayudas percibidas en rehabilitaciones que afecten a elementos comunes de los inmuebles.

b) Las adjudicaciones que se produzcan a favor de uno de los cotitulares de la vivienda o local, como consecuencia de procesos de separación matrimonial, divorcio o ruptura de parejas, inscritas o no en el Registro de Parejas de Hecho, y aquellas otras que se produzcan, como consecuencia de la ruptura de unidades convivenciales, constituidas por miembros unidos por una relación de parentesco de consanguinidad en primer grado.

3.– Todo propietario de una vivienda que haya sido objeto de ayudas económicas directas para compra o para rehabilitación deberá comprometerse ante la Delegación Territorial del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Territorio Histórico correspondiente, a la inscripción registral de limitación dispositiva del dominio de la vivienda durante:

– 10 años en el caso de ayudas económicas directas a la compra de vivienda libre usada desde el otorgamiento de la escritura pública de compraventa.

– 5 años en el caso de ayudas económicas directas a la rehabilitación desde la certificación final de obra.

El documento que recoja el citado compromiso deberá ser presentado ante el Registro de la Propiedad correspondiente el cual practicará, a la vista de dicho documento, el asiento registral de limitación dispositiva del dominio de la forma que sea procedente conforme a la legislación hipotecaria.

4.– Una vez que la Administración concedente reciba el documento en el que conste la inscripción de la limitación dispositiva del dominio se procederá a aprobar el pago de la subvención a fondo perdido.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Cabrá la descalificación con anterioridad al transcurso del plazo legal previsto en la normativa correspondiente, en el supuesto de viviendas libres que hayan sido calificadas como resultado de actuaciones protegidas de rehabilitación o de adquisición, salvo que la calificación de dichas viviendas como protección oficial estuviera prevista en un convenio urbanístico.

La descalificación se concederá a petición del propietario de la vivienda, previo reintegro del importe de las ayudas directas que se hayan percibido para la rehabilitación o la adquisición de la vivienda por su propietario actual o por cualquier anterior propietario, incrementado con los intereses generados desde su percepción, conforme al tipo de interés legal vigente.

Segunda.– Los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco habrán de presentar ante la Delegación Territorial correspondiente copia de los con-

re hitzarmen horiek Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari lehentasunez erosteko eta atzera eskuratze-ko eskubideari buruz aurreikusitako ondorioetarako beren udalerrietan egiten diren sustapenen esparruan izenpetutakoak badira. Kopia hori aurkezteko gehienez hila- bete bateko epea izango dute aipatutako hitzarmenak Udalaren aurrean aurkezten direnetik.

Hirugarrena.— Erregimen autonomikoko zuzkidura-bizilekuak.

Erregimen autonomikoko zuzkidura-bizilekuak horrelakoak izango dira:

1.— Diseinuari dagokionez:

a) Zuzkidura-bizileku bakoitzaren azalera erabilgarria ez da ez 25 metro koadrotik beherakoa ez 60 metro koadrotik gorakoa izango.

b) Jateko, janaria prestatzeko eta lo egiteko gela bat izango dute gutxienez, eta orobat dutxa duen komun bat.

c) Osagai komunetara eta bizilekuetara gurpil-aulkiekin sartu ahal izango da.

d) Gurpil-aulkia behar duten erabiltzaileentzat bizileku bat gordeko da 50 bizilekuko. Gauza bera egingo da etxebizitza-kopurua, 50era iritsi gabe, 25etik gorakoa denean.

e) Instalazio guztiak, telekomunikazioetakoak izan ezik, komunitarioak izango dira, banakako kontagailurik gabekoak. Hori dela eta, denon artean ordaindu beharko dira bai gastu horiek bai etxebizitzaren mantentze-gastuak.

f) Eraikinak gune komunak izango ditu eta bizilekuetatik sartu ahal izango da bertara. Gune horietan honakoak egongo dira:

— Bizilekuetan ez dauden instalazioak (sukaldea, arropa garbitzeko eta lehortzeko instalazioak, etab.).

— Etxebizitza mantentzeko eta kontrolatzeko gelak eta ekipoak.

g) Eraikinak edo ondoko ingurune urbanoak aparkalekuak bermatu beharko dituzte, bizileku bakoitzeko aparkaleku bat.

h) Eraikinak bizikletak aparkatzeko eta gordetzeko lokal bat izango du.

2.— Erabilerari dagokionez:

a) Debekatuta dago edozein lan egitea, etxebizitza konpontzeko eta mantentzeko lan arruntak izan ezik.

b) Bizileku hauen truke erabiltzaileek kanon bat ordaindu beharko dute hilero, emakida esleitzean bizilekuko prezio gorenean zehaztuko dena.

tratos de compraventa de vivienda tasada municipal que se suscriban en promociones llevadas a cabo en su municipio a los efectos prevenidos en la disposición adicional octava de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco sobre el ejercicio subsidiario del derecho de tanteo y retracto en el plazo en el plazo máximo de un mes desde la presentación de dichos contratos ante el Ayuntamiento.

Tercera.— Características de los alojamientos dotacionales de régimen autonómico.

Los alojamientos dotacionales de régimen autonómico se sujetarán a las siguientes determinaciones:

1.— En cuanto a su diseño:

a) La superficie útil de cada unidad de alojamiento no podrá ser inferior a 25 m² útiles ni superior a 60 m² útiles.

b) Tendrán como mínimo una dependencia que resuelva los usos de comer, cocinar y dormir, más un cuarto de aseo independiente con ducha.

c) Se garantizará el acceso a usuarios en sillas de ruedas a la totalidad de los elementos comunes y unidades de alojamiento.

d) Se reservará una unidad de alojamiento adaptada para usuarios en sillas de ruedas de cada 50 unidades o fracción en el caso de que el número de unidades de alojamiento sea superior a 25 unidades.

e) Todas las instalaciones, salvo las de telecomunicaciones, serán comunitarias, sin contadores individuales, por lo que se repartirán por unidades estos gastos junto con los del mantenimiento ordinario del inmueble.

f) En la edificación se podrá disponer de zonas comunes de uso y acceso restringido desde el interior de los inmuebles para los siguientes fines:

— Instalaciones y usos de servicio (cocina, lavado, secado de ropa, etc.), y de estancia que no sean resueltos en la propia unidad de alojamiento.

— Cuartos y equipos de control y mantenimiento del inmueble.

g) El edificio o su entorno urbano inmediato deberán ser capaces de resolver la dotación de aparcamiento de vehículos en la proporción de una plaza por cada unidad de alojamiento.

h) Se preverá un local para aparcamiento y guarda de bicicletas.

2.— En cuanto a su uso:

a) Se prohíbe la realización de cualquier obra, salvo las de reparación, conservación y mantenimiento ordinario del inmueble.

b) El régimen de acceso de los usuarios se producirá mediante el abono de un canon mensual, que se determinará en el momento de adjudicación de la concesión, por partida alzada por unidad de alojamiento.

c) Erabiltzaileek ezin izango dute beste bizileku bat eduki ez jabetzan ez beste titulu baten bidez.

d) Bizilekuak hiler, gehienez urtebete baterako, eskuratu ahal izango dira. Epe hori urtero luzatu ahal izango da lau alditan.

3.– Sustapenari dagokionez:

a) Honela sustatu ahal izango da:

- Zuzenean, Herri Administrazioaren eskutik.
- Zeharka, emakida administratiboko erregimenean.

b) Emakidaren xedea zuzkidura-bizilekuen obra eta/edo kudeaketa izan daiteke.

c) Emakidadunak emakida administratiboa hipotekatu ahal izango du zuzkidura-bizilekuen eraikuntza-ren sustapena eta/edo kudeaketa finantzatzeko, oinarriko administrazio-legedian sektore publikoaren kontratazioari buruz ezarritakoaren arabera.

d) Oinarriko altzariak eta etxetresna elektrikoak dituztela entregatuko zaizkie bizilekuak erabiltzaileei.

e) Zuzkidura-bizilekuen eta sestra-azpiko aparkalekuen sustapena eta kudeaketa batera zein banaka esleia daiteke, eta hainbat pertsonak edo enpresak har dezakete. Era berean, zuzkidura-bizileku baten eta aparkaleku baten erabilera baterakoa zein banakakoa izan daiteke eta hainbat pertsonari edo enpresari esleia daieke.

4.– Hirigintza-kalifikazioari dagokionez:

a) Gutxienez hirigintza-partzela bat jabari eta erabilera publikokoa izango da.

b) Batera ezina izango da beste edozein hirigintza-eraikigarritasun motarekin.

5.– Zuzkidura-bizilekuak esleitzeko moduari eta eskuratzeko baldintzei dagokienez, aurreikusten ez den orotan, babes publikoko etxebizitzaren arloan ezarritakoak aplikatuko dira.

Laugarrena.– Subsidiarioki aplikatzea.

Dekretu honetako xedapenak subsidiarioki aplikatuko dira, udal-ordenantza espezifiko baten faltan, jarduera hauei buruzko erregimen juridikoa garatu ez duten udalerrietan: udal-etxebizitza tasatuak, zuzkidura-bizilekuak sustatzeko, eskuratzeko, eraikitze, erabiltzeko eta aprobetxatzeko jarduerak, eta orobat etxebizitza horietara bideratutako lurzorua eskuratzeko, egokitze eta urbanizatzeko jarduerak.

Xedapen horiek aplikatzeko, erreferentzia gisa hartuko dira Dekretu honetan aipatzen diren babes ofizialeko etxebizitza tasatuei buruzko parametroak.

c) Los usuarios no podrán disponer de otra vivienda ni en propiedad ni por cualquier título que suponga su uso.

d) El acceso se producirá por meses, por un plazo de tiempo máximo de un año, susceptible de ser prorrogado anualmente en cuatro ocasiones.

3.– En cuanto a su promoción:

a) Se podrán promocionar:

- Directamente por la Administración Pública.
- Indirectamente en régimen de concesión administrativa.

b) El objeto de la concesión podrá ser la obra y/o la gestión de los alojamientos dotacionales.

c) El concesionario podrá hipotecar la concesión administrativa en orden a financiar la promoción de la edificación y/o la gestión de los alojamientos dotacionales, según lo dispuesto en la legislación administrativa básica en materia de contratación del sector público.

d) Se entregarán a los usuarios con los electrodomésticos y el mobiliario básico instalado necesario para ocuparlos.

e) La determinación del concesionario de obra y gestión de los alojamientos dotacionales y de los aparcamientos de vehículos bajo rasante podrá ser bien conjunta bien independiente y recaer en distintas personas o empresas. Así mismo y en consecuencia, la determinación del usuario de una unidad de alojamiento dotacional y de una unidad de aparcamiento podrá ser bien conjunta bien independiente y recaer en distintas personas o empresas.

4.– En cuanto a su calificación urbanística:

a) Deberá recaer al menos en una parcela urbanística independiente, que será en todo caso de dominio y uso público.

b) Será incompatible con cualquier tipo de edificabilidad urbanística.

5.– En cuanto al procedimiento de adjudicación y los requisitos de acceso se estará, en lo no previsto, a los señalados para las viviendas de protección pública.

Cuarta.– Aplicación subsidiaria.

Las disposiciones recogidas en el presente Decreto se aplicarán de manera subsidiaria en aquellos municipios que, en ausencia de ordenanza municipal específica, no tengan desarrollado el régimen jurídico referente a las actuaciones de promoción, acceso, construcción, uso y aprovechamiento de alojamientos dotacionales, viviendas tasadas municipales, así como las actuaciones de adquisición, preparación y urbanización de suelo destinado a tales viviendas.

En orden estrictamente a dicha aplicación subsidiaria se tomarán como referencia los parámetros referidos a las viviendas de protección oficial de régimen tasado establecidas en este Decreto.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.— 1.— Dekretu hau indarrean sartu aurretik behin-behineko kalifikazioaren eskaera aurkeztu duten babes ofizialeko etxebizitza-espeditenteak, horiek ebazteko, aurreko araudiak arautuko ditu.

2.— Dekretu hau indarrean sartu aurretik aurkeztu diren alokatzeko edo prekarioan lagatzeko kontratuei oniritzia emateko edo baimentzeko eskaerak aurreko araudiak arautuko ditu.

3.— Etxebizitza babestuaren besterentzea edo lagapena, hura besterendu edo laga zenean indarrean zegoen araudiak arautuko du ondorio guztietarako.

Bigarrena.— 1996ko abuztuaren 14tik aurrera eta 315/2002 Dekretua hau indarrean sartu aurretik egin dako behin-behineko kalifikazioen eskaerei dagokienez, babes ofizialeko etxebizitzaren legezko erregimenaren iraupena 20 urtekoa izango da, dagokion behin betiko kalifikazioa ematen den egunetik hasita. Dena den, babes ofizialeko erregimena, hala badagokio, emandako finantza-neurriak osorik amortizatu arte luzatuko da.

Etxebizitzaren arloko finantza-neurriei buruzko uztailaren 30eko 213/1996 Dekretua baino lehenagoko araudiaren arabera kalifikatutako babes ofizialeko etxebizitzak dagokienez, 20 urtekoa izango da babes ofizialeko etxebizitzaren legezko erregimenaren iraupena, dagokion behin betiko kalifikazioa ematen den egunetik hasita. Dena den, babes ofizialeko erregimena, hala badagokio, emandako finantza-neurriak osorik amortizatu arte luzatuko da.

Dena dela, babes ofizialeko erregimenaren iraupena 30 urtekoa izango da ondorengo kasuetan:

1.— Alokairuzko babes ofizialeko etxebizitzak direnean.

2.— Jabetza osoan besterendutako sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak direnean.

Hirugarrena.— Dekretu honen VI. Kapituluan, beste bizileku bat eskuratzeko eskubideari buruz ezarritako araudia aplikatu beharrekoa izango da desjabetutako ondasunen eta eskubideen berri emateko izapidea hasi ez den nahitaezko desjabetze-espeditente guztietan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa.— Indargabeturik geratzen dira babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 26ko 306/2000 Dekretua, horren babesean sortutako egoerak salbu, eta halaber, Dekretu honetan

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.— 1.— Los expedientes de calificación de viviendas de protección oficial en los cuales se haya presentado la solicitud de calificación provisional, antes de la entrada en vigor del presente Decreto, se regirán, para la resolución de dichos expedientes, por la normativa anterior.

2.— Las solicitudes de visado de contratos o de autorizaciones de arrendamiento o cesión en precario presentados antes de la entrada en vigor del presente Decreto se regirán por la normativa anterior.

3.— La transmisión o cesión de viviendas protegidas se regirá a todos los efectos por la normativa vigente en la fecha en que se produzca la misma.

Segunda.— El plazo de duración del régimen legal de las viviendas de protección oficial cuya solicitud de calificación provisional se haya producido a partir del 14 de agosto de 1996 y antes de la entrada en vigor del Decreto 315/2002 concluirá transcurridos 20 años, a contar desde la fecha del otorgamiento de la correspondiente calificación definitiva. Esto no obstante, el régimen de protección oficial se prorrogará, en su caso, hasta la total amortización de las medidas financieras concedidas.

El plazo de duración del régimen legal de las viviendas de protección oficial calificadas de conformidad con lo establecido en la normativa anterior al Decreto 213/1996, de 30 de julio, sobre medidas financieras en materia de vivienda pasa a ser de 20 años, contados desde la calificación definitiva de las mismas. Esto no obstante, el régimen de protección oficial se prorrogará, en su caso, hasta la total amortización de las medidas financieras concedidas.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior el plazo de duración del régimen de protección seguirá siendo de 30 años en los casos siguientes:

1.— En el caso de viviendas de protección oficial cuyo régimen de uso sea el arrendamiento.

2.— En el caso de viviendas de protección oficial de promoción pública transmitidas en régimen de propiedad plena.

Tercera.— La regulación del derecho a realojo establecida en el Capítulo VI de este Decreto será de aplicación a todos aquellos expedientes de expropiación forzosa en que no se haya iniciado el trámite de información pública de la relación de bienes y derechos afectados.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.— Queda derogado el Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, a salvo de las situaciones creadas a su amparo, y cualquier otra disposición de igual o inferior

ezarritakoaren aurkakoa den maila bereko edo apalago-ko beste edozein xedapen.

Halaber indargabeturik geratzen da lurzorua eta urbanizazioaren arloko finantza-neurriei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena.

Bigarrena.— Dekretu honetan xedatutakoaren kontrakoa esaten ez duten bitartean, hauek dira indarrean jarraitzen duten Aginduak:

— 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoa.

— 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa.

— 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lehentasunez erregimen orokorreko zein erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoruak kostu bidez eskuratzeari dagozkion lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

— 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.

— 2002ko abenduaren 30eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa.

— 2003ko abuztuaren 25eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioak zehazteari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak behar adina xedapen eman ahal izango ditu Dekretu hau garatzeko.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 4an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

rango que se oponga a lo establecido en el presente Decreto.

Asimismo se deroga la Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo y urbanización.

Segunda.— Se mantienen expresamente vigentes, en tanto no contradigan a lo dispuesto en el presente Decreto las siguientes Órdenes:

— Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de medidas financieras para compra de vivienda.

— Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda.

— Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo con destino preferente a la promoción de vivienda de protección oficial de régimen general y de régimen especial.

— Orden de 4 de octubre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas de acción positiva en materia de vivienda para mujeres víctimas de violencia de género.

— Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre ayudas a la promoción de vivienda de protección oficial y medidas de fomento al alquiler.

— Orden de 25 de agosto de 2003, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta al Consejero de Vivienda para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

I. ERANSKINA
MARTXOAREN 4KO 39/2008 DEKRETUARENA

Babes publikoko etxebizitzaren salerosketa-kontratuetan nahitaez agertu beharreko baldintzak (lehen eskualdatzea)

1.— Erosketaren xede den etxebizitza horrek babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenaren ondorio diren debeku eta mugak bete behar ditu, eta erabilera-baldintzak behin betiko kalifikazioan adierazitakoak izango dira eta salmentaren prezioek ezin izango dituzte ezarritako mugak gainditu.

2.— Saltzailea beharturik dago etxebizitzaren giltzak hiru hilabeteko gehieneko epean ematera, behin betiko kalifikazioa ematen den egunetik edo kontratua egiten den egunetik —hori gerokoa balitz— kontatzen hasita, non eta Ordezkaritzak epe hori luzatzen ez duen.

3.— Eroslea beharturik dago etxebizitza hori okupatzera hiru hilabeteko gehieneko epean giltzak eman zaizkionetik kontatzen hasita, hori ez egiteko arrazoi justuren bat egon ezean.

4.— Saltzailea beharturik dago eskuratzailerik edo errentariaren esku kontratu bat jartzera, Ordezkaritzak behar bezala bisatua.

5.— Erosleak etxebizitza horretan izango du bere ohiko etxebizitza iraunkorra hiru hilabeteko epean, eta hori egiaztatzeko dagokion udal-ziurtagiria aurkeztu behar du Lurralde Ordezkaritzan, eta halaber, konpromisoa hartzen du etxebizitza horretan bere ohiko etxebizitza iraunkorra finkatzeko.

6.— Etxebizitza hori ohiko bizileku iraunkorrerako ez erabiltzeak normalean okupatu gabe edukiz, edo bigarren bizileku izateko edo baimendu gabeko beste xede batzuetarako erabiltzeak, egindako legehauste oso larri horri dagozkion diru-zigorrez gain, interes sozialarengatik etxebizitzaren desjabetzea eragin dezake.

7.— Saltzailea beharturik dago salerosketaren kontratu pribatua eskritura publikoan jasotzera, hiru hilabeteko epean, etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren edo kontratuaren —hura gerokoa balitz— egunetik kontatzen hasita, epe hori Ordezkaritzak luzatu ezean.

8.— Obra berriaren adierazpenari eta zatiketa horizontalari buruzko gastuak, baita hipoteka-mailategua eratu eta zatitzeari dagozkionak ere, edonola ere, etxebizitzaren sustatzailearen kontura izango dira.

9.— Erosleak kontratua amaiaraztea eskatu ahal izango du, etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa ezesten baldin bada.

10.— Etxebizitzaren eskualdatzea apirilaren 15eko 7/1988 Legearen —babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzeetan EAEko Administrazioak duen erosteko lehen-

ANEXO I
AL DECRETO 39/2008, DE 4 DE MARZO

Cláusulas de inclusión obligatoria en los contratos de compraventa de viviendas de protección oficial (primera transmisión)

1.— La vivienda objeto de compra está sujeta a las prohibiciones y limitaciones derivadas del régimen de viviendas de protección oficial y las condiciones de utilización serán las señaladas en la calificación definitiva y los precios de venta no podrán exceder de los límites establecidos.

2.— El vendedor se obliga a entregar las llaves de la vivienda en el plazo máximo de tres meses contados desde la concesión de la calificación definitiva o desde la fecha del contrato, si fuera posterior, salvo que dicho plazo sea prorrogado por la Delegación.

3.— El comprador se obliga a ocupar la vivienda en el plazo máximo de 3 meses a partir de la entrega de llaves, salvo que medie justa causa.

4.— El vendedor se obliga a poner a disposición del adquirente o arrendatario un ejemplar del contrato, debidamente visado por la Delegación.

5.— El comprador de la vivienda fijará en ella su residencia habitual y permanente en el plazo de tres meses, lo que acreditará presentando en la Delegación Territorial la certificación municipal correspondiente, y se compromete a dedicar la vivienda a su domicilio habitual y permanente.

6.— No dedicar la vivienda a domicilio habitual y permanente, manteniéndola habitualmente desocupada o dedicarla a segunda residencia o a otros usos no autorizados, podrá implicar además de las sanciones pecuniarias que puedan corresponder a la infracción muy grave cometida, la expropiación de la vivienda por interés social.

7.— El vendedor se obliga a elevar a escritura pública el contrato privado de compraventa, y a presentar la escritura pública en la Delegación Territorial correspondiente en el plazo de tres meses a partir de la fecha de la calificación definitiva de la vivienda o de la del contrato, si fuera posterior, salvo que dicho plazo sea prorrogado por la Delegación.

8.— Los gastos concernientes a la declaración de obra nueva y división horizontal, así como los correspondientes a la constitución y división del crédito hipotecario, serán en todo caso a cuenta del promotor de la vivienda.

9.— Podrá el comprador instar la resolución del contrato en el caso de denegación de la calificación definitiva de la vivienda.

10.— La transmisión de la vivienda se halla sometida a las prescripciones de la Ley 7/1988, de 15 de abril, de derecho preferente de adquisición en las transmisio-

tasun-eskubideari buruzkoa— preskripzioen eta hura garatzen duten xedapenen menpe dago; Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aipatutako lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko Tokiko Administrazioek dituzten eskubideak gorabehera.

11.— Hitzarmenaren sinatzaileek berariaz onartuko dute dekretu honetako 15. artikuluan finkatutako esleipen-prozedura. Azkenean esleipendun suertatzen ez den pertsonari dagokionez, hitzarmen hori zuzenbide osoz ebatziko da.

12.— 31/1978 Errege Dekretu-Legearen babes ofizialeko erregimenaren ondorio diren gainerako debekuak eta mugak, eta haiek garatzen dituzten gainerako xedapenak bete beharko dira.

II. ERANSKINA

MARTXOAREN 4KO 39/2008 DEKRETUARENA

Babes publikoko etxebizitzaren salerosketa-kontratuetan nahitaez agertu beharreko baldintzak (bigarren eta ondorengo eskualdatzeak).

1.— Erosketaren xede den etxebizitza horrek babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenaren ondorio diren debeku eta mugak bete behar ditu, eta erabilera-baldintzak behin betiko kalifikazioan adierazitakoak izango dira eta salmentaren prezioek ezin izango dituzte ezarritako mugak gainditu.

2.— Saltzailea beharturik dago etxebizitzaren giltzak hiru hilabeteko gehienezko epean ematera, kontratua egiten den egunetik kontatzen hasita, non eta Ordezkaritzak epe hori luzatzen ez duen.

3.— Eroslea beharturik dago etxebizitza hori okupatzera hiru hilabeteko gehienezko epean giltzak eman zaizkionetik kontatzen hasita, hori ez egiteko arrazoi justuren bat egon ezean.

4.— Saltzailea beharturik dago eskuratzailerako errentariaren esku kontratu bat jartzera, Ordezkaritzak behar bezala bisatua.

5.— Erosleak etxebizitza horretan izango du bere ohiko etxebizitza iraunkorra hiru hilabeteko epean, eta hori egiaztatzeko dagokion udal-ziurtagiria aurkeztu beharko du Lurralde Ordezkaritzan, eta halaber, konpromisoa hartzen du etxebizitza hori bere ohiko etxebizitza iraunkorra izateko.

6.— Etxebizitza hori ohiko bizileku iraunkorrerako ez erabiltzeak normalean okupatu gabe edukiz, edo bigarren bizileku izateko edo baimendu gabeko beste xede batzuetarako erabiltzeak, egindako legehauste oso larri horri dagozkion diru-zigorrez gain, interes sozialerengatik etxebizitzaren desjabetzea eragin dezake.

nes de viviendas de protección oficial a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y disposiciones que la desarrollan, sin perjuicio de los derechos de tanteo y retracto que asista adicionalmente a las Administraciones Locales en base la disposición adicional octava de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

11.— La aceptación expresa por parte de los suscribientes del contrato, del mecanismo de adjudicación previsto en el artículo 15 del presente Decreto entendiéndose que dicho contrato queda resuelto de pleno derecho con respecto a la persona que finalmente no resulte adjudicataria.

12.— La sujeción a las restantes prohibiciones y limitaciones derivadas del régimen de protección oficial del Real Decreto-Ley 31/1978 y demás disposiciones que las desarrollen.

ANEXO II

AL DECRETO 39/2008, DE 4 DE MARZO

Cláusulas de inclusión obligatoria en los contratos de compraventa de viviendas de protección oficial (segundas y posteriores transmisiones)

1.— La vivienda objeto de compra está sujeta a las prohibiciones y limitaciones derivadas del régimen de viviendas de protección oficial y las condiciones de utilización serán las señaladas en la calificación definitiva y los precios de venta no podrán exceder de los límites establecidos.

2.— El vendedor se obliga a entregar las llaves de la vivienda en el plazo máximo de tres meses contados desde la fecha del contrato, salvo que dicho plazo sea prorrogado por la Delegación.

3.— El comprador se obliga a ocupar la vivienda en el plazo máximo de 3 meses a partir de la entrega de llaves, salvo que medie justa causa.

4.— El vendedor se obliga a poner a disposición del adquirente o arrendatario un ejemplar del contrato, debidamente visado por la Delegación.

5.— El comprador de la vivienda fijará en ella su residencia habitual y permanente en el plazo de tres meses, lo que acreditará presentando en la Delegación Territorial la certificación municipal correspondiente, y se compromete a dedicar la vivienda a su domicilio habitual y permanente.

6.— No dedicar la vivienda a domicilio habitual y permanente, manteniéndola habitualmente desocupada o dedicarla a segunda residencia o a otros usos no autorizados, podrá implicar además de las sanciones pecuniarias que puedan corresponder a la infracción muy grave cometida, la expropiación de la vivienda por interés social.

7.– Etxebizitzaren eskualdatzea apirilaren 15eko 7/1988 Legearen –babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzeetan EAEko Administrazioak duen erosteko lehen-tasun-eskubideari buruzkoa– preskripzioen eta hura ga-ratzen duten xedapenen menpe dago, Lurzoru eta Hi-rigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aipatutako lehentasu-nez erosteko eta atzera eskuratzeko Tokiko Administra-zioek dituzten eskubideak gorabehera.

8.– Hitzarmenaren sinatzaileek berariaz onartuko dute dekretu honetako 15. artikuluan finkatutako es-leipen-prozedura. Azkenean esleipendun suertatzen ez den pertsonari dagokionez, hitzarmen hori zuzenbide osoz ebatziko da.

9.– 31/1978 Errege Dekretu-Legearen babes ofizia-leko erregimenaren ondorio diren gainerako debekuak eta mugak, eta haiek garatzen dituzten gainerako xe-dapenak bete beharko dira.

III. ERANSKINA

MARTXOAREN 4KO 39/2008 DEKRETUARENA

Etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzak egiaz-tatze aldera, beste erakunde batzuei datu pertsonalak eskatzeko EAEko Administrazioari emandako baime-na.

«Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Sailari baimena ematen diot etxebizitza babestuak eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak erakun-de eskudunei eskatzeko. Erakunde eskudunak izango dira, behinik behin, Foru Ogasunak, Gizarte Seguran-tzaren Diruzaintza Orokorra, Estatistikako Institutu Nazionala eta Jabetza Erregistroak».

7.– La transmisión de la vivienda se halla sometida a las prescripciones de la Ley 7/1988, de 15 de abril, de derecho preferente de adquisición en las transmisio-nes de viviendas de protección oficial a favor de la Ad-ministración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y disposiciones que la desarrollan, sin perjuicio de los derechos de tanteo y retracto que asista adicionalmen-te a las Administraciones Locales en base la disposición adicional octava de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

8.– La aceptación expresa por parte de los suscribien-tes del contrato, del mecanismo de adjudicación pre-visto en artículo 15 del presente Decreto entendiéndose que dicho contrato queda resuelto de pleno derecho con respecto de la persona que finalmente no resulte ad-judicataria.

9.– La sujeción a las restantes prohibiciones y limi-taciones derivadas del régimen de protección oficial del Real Decreto-Ley 31/1978 y demás disposiciones que las desarrollen.

ANEXO III

AL DECRETO 39/2008, DE 4 DE MARZO

Autorización a la Administración General del País Vasco para incluir y solicitar datos personales a otras entidades a efectos de la verificación de los requisitos de acceso a vivienda protegida.

«Autorizo al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco a recabar de los organis-mos competentes los datos necesarios para verificar el cumplimiento de todas las condiciones y requisitos de acceso a vivienda protegida. Los organismos competen-tes serán, al menos, las Haciendas Forales, la Tesorería General de la Seguridad Social, el Instituto Nacional de Estadística y los Registros de la Propiedad».